

KONCHEŠI TA PETRACHO

(ALKAR-IZKETA)

Alkar-izketa au, Koru'ko Andre Maria'ren ikastechean bi neškak esan zuten, sariketa-jayian.

ZER zabilta, Koncheši.
—Emenche, Petracho, zerbait esan biar dedala-ta. Nonbait berritsu aundi batzat artu naute.

—Nik ere beste ainbat esan nezake. Neri ere etortzeko esan didate, itzegin biar dedala-ta, bañan nik eztakit zer esan.

—Zer esan eztakizula beaz? Badezu beti zerbaiteko ariya.

—Ariya bai, bañan jostorratzik ez.

—Jostorratza badet nik.

—Orduan biyok, batak jostorratzez, bestiak ariyaz, zerbait antolatuko degu.

—Ia bada.

—Gaur, Koncheši, ikasteche ontan sariyak emango dituzte, ta sariyak izan ezkeru, osoro postutzen gera.

—Sariya! Sariya! Zer itz atsegiña! Biyotzak sari-artian bizi nai luke! Bañan sariyak izerdi ta lana eskatzen ditu.

—Nik beñepin, naiko lan ta izerdi egin det; ta orrechegatik uste det, sarien bat emango didatela irakasliak.

—Ni ere sari eder baten ustetan nago.

—Bañan ustetan egotia ezta naikua. Lanik egin aldezu sariyaren diñan?

—Bai noski! Ara zer egiten dedan egunaren barrunbian. Goiz jai-ki, oso goiz, amachok goiz deitzen nau-ta. Nik lo pitin bat geyago egingo nuke, bañan.....

—Amachok ez dizu usten, ezta ala? Kilimakuak egingo dizkizu, esnarasteko. Eztaala?

—Batzuetan bakarrik.

—Neri beti; ni osoro lotiya naiz-ta. Amak deitzen nauenian, lo-ichura egiten det, esna egon arren. Ez aldakizu osoro atsegiña izaten dala esna ta birako lo gošo-gošua?

—Ta ez alzera jaikitzen amak deitutako lenengo chandan?

—Ez! Beste bi edo iru lo zurrunga egin-da, bai.

—Orduan, alper samarra zera.

—Ta zu?

—Ni ez. Jaiki, otoitzak egin apal ta zeazkiro Jauna'ren irudi baten aurrian: Andre Maria'ri iru agur esan, ta lašterka-lašterka banua su-kaldera. Sua pištu, ontziyak esnez bete, surtan jarri, gozariyak gertu, etše barrunbia erratzaz garbitu, azakara joan, andik etorri, meza entzun, mezetan Jaun Aundiya artu, elizatik biurtu, t'aizpa zarrena orraztu.....

—Ta zedorri noiz orrazten zera?

—Otoitzak egin-da, beriala.

—T'aizpa zarrena, zergatik ezta bedori orrazten?

—Jostuna da, ta jostundegira osoro ponpoša agertu nai du. Gañera adatz, edo ille motots ugariyak ditu, ta ille ugariyak diranak laguntzallea biar dute.

—Ta zer geyago?

—Gero gozaldu, ikastechera joan, andik echera biortu, ta baskal-aurreko aginduak gogoz bete: bazkaldu; ikastechera berriz, andik atera, amari, une aldi batian, beste egintza batzuek egin, gero dotriñ-ikastechera, anchen ondo egon ta arduraz ikasi; emendik elizara, Jaun Aundiari ikustaldi bat egitera, errosariyua esan, apaldu ta lo..... Iri-chi alnezake sariyik?

—Nik guchiyago egin-da icharon det.

—Esan zadazu zer egin dezun.

—A! Zure laurdenik ere ez. Jaiki, otoitzak doi-doi egin, gozaldu, ikastechera gogo charretik joan, ta andik atera-ta diabolari gogotik ekin.

—Diabolo! Diabolo! Izen charraren soñua du itz orrek.

—Ez aldakizu zer-dan? Orain bada neska guziyak tresna orrekin dabiltz.

—Bai, badakit zer dan. Edozeñi burua puskatzeko bidia.

—Ta jostatzeko ta algaretzeko bide ona ere bai.

—Jostaketa charra da, ta besteren bizkar algara dakarrena. Ori ez dago ondo. Ta orrela ibilli-ta, oraindik ere sariyaren eske zatotz? Diabolo'kin dabillenak ez du sariyik, ezpada zigorra baizik.

—Ikaratzen nazu!

—Ez ikaratu. Gaitzari osakaya jarri letzayo-ke-ta.

—Bañan..... sariyik izango al-det?

—Etzenuke biar; bañan lureko gauzetaz zale zabiltzalako, eman-
go zaizu zazpi kuartoko marama. Ez dezu besterik irichi.

—Ta zuk?

—Nik jantzi eder baten gaya icharon det.

—O! ta zergatik?

—Zuk bañon geyagoko ta sakonagoko gauzak egiten ditudalako.

—Bai, zure aispa marama orrastu.....

—Ta zer diyo? Ori ere Jauna'ren izenian egin eskero, nik egiten dedan bezela, sarigarriya da..

—Bai, zuk egiten dezun guziya sarigarri, ta nik egiten dedana puz-
kagarri.

—Ez ordia, biar dan zumentasun ta arintasunez egingo bazendu.
Orduan nik bañon sari aundiyagua agiyan irabaziko zenduke.

—Nola, nola?

—Nik egiten ditudanak egin: guziyak ezin badituzu, erdiyak edo
lurdenak, bañan egiten dana Jauna'rentzat zuzen bijoa. Orduan soñe-
ko berriyaren gaya emango zaizu.

—Soñeko berriya! Irichiko ote det-bada?

—Bai ta aguro noski. Gaur bertan.

—Bañan aukeratuak daude sari guziyak bakoitzarentzat. Bati ken-
du-ta nola emango didate neri? Ori ezinkorra da.

—Ez naiz ni lureko soñekoaren zale ichua. Jaunak beti gertuchu
daukaski beste soñeko ederraguak; t'orainchen asmotzen bazera gauzak
ongi egitera, orainchen bertan emango dizu soñeko berri ori.

—Bai, bai, asmotua nago, ta maite det biyotz guziz Jaungoikua!

—Petracho: Orainchen zure biyotza soñeko eder orrez jantziya
dago. Irabazi dezu; zorionak!

—Zuk, Koncheši, ekatzu lastan bero bero bat!